

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro, siendo las 16,15 horas, del día 29 de marzo de 2021, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres./as Concejales/as, Don José María Eciolaza Ochoa, Don Juan Luis Fermin Gil García, Dña. Miren Nekane Nuño Iturri, y Dña. Leire Remiro Esnoz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garralda Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia la concejala Doña Teresa Bidaurreta Azkarate. Previo al inicio del primer punto del orden del día, la concejala de Haize Morea, Sra. Remiro, informan que van a grabar la sesión.

### **UNICO: SOLICITUD CONVOCATORIA AYUDAS A REMODELACIÓN DE CENTRO ESCOLARES-MEMORIA ERRO**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que en relación con la convocatoria de ayudas para la remodelación de centros escolares, informa de la memoria redactada por Nasuvinsa y de las actuaciones a llevar a cabo que se han van a solicitar, en función de las necesidades requeridas y aprobadas a su vez por el Consejo escolar

Visto que lo que la memoria que se va a presentar recoge las necesidades expuestas y solicitada por el centro escolar de Erro, la Corporación por unanimidad acuerda:

1º.- Aprobar la memoria valorada redactada por NASUVINSA y llevar a cabo las obras de remodelación y reforma de la Escuela Pública de Erro cuyo coste asciende a 52.266,74 € + 2.840,01 € (15% GG y BI) +12.622,42 € (21% IVA) + 310 € (memoria)

2º.- Solicitar la subvención correspondiente en base a la Resolución 3E/2021 de 2 de febrero, presentando en tiempo y forma la documentación exigida

Y sin más asuntos que tratar siendo las 17,15 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2021eko martxoaren 29ko 16:15ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil García, Miren Nekane Nuño Iturri eta Leire Remiro Esnoz, bilkuraburu alkatea, Enrique Garralda Erro izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Teresa Bidaurreta Azkarate zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

Gai zerrendari ekin baino lehen Haize Moreako zinegotziak, Leire Remirok, bilkura grabatuko duela jakinarazi du.

## **BAKARRA: IKASTETXEAK EGOKITZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAN ESKAERA EGITEA-ERROKO IKASTETXEKO MEMORIA**

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta ikastetxeak birmoldatzeko laguntzen deialdiari dagokionez, Nasuvinsak idatzitako memoriaren eta eskatuko diren jardueren berri eman du, eskola-kontseiluak eskatutako eta onartutako premien arabera.

Aurkeztuko den memorian Erroko ikastetxeak azaldutako eta eskatutako beharrak jasotzen direla ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- NASUVINSAk idatzitako memoria baloratua onartzea eta Erroko Eskola Publikoa birmoldatzeko eta eraberritzeko lanak egitea. Horren kostua 52.266,74 € + 2.840,01 € ( % 15 GG eta BI) + 12.622,42 € ( %21 BEZ) + 310 € (memoria) da.

2.- Otsailaren 2ko 3E/2021 Ebazpenean oinarrituta, dagokion diru-laguntza eskatzea, eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztuz.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 17:15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.